

**BALDINTZA-ORRI BERRIA, SOLOARTEKO GARAJE  
PRIBATUKO 272 UDAL-PARTZELA EROSTEKO  
AUKERAREKIN ALOKATZEKO (2023. URTEA)**

2023/01/19an egindako Ogasun, Ondare, Ekonomia Sustapen eta Merkataritzako Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio urtarrilaren 26an egingo den osoko bilkurari, Udalaren jabetzako partzelak erosteko aukerarekin alokatzeko baldintzen pleru aldatuak onartzeko proposamenari.

Hona hemen berrikuntza nagusiak:

- 2023an erosteko aukera gauzatzeko prezioak 24.000€-koak izango dira desgaituentzat, 21.900€-koak 1. sotoarentzat eta 20.075€-koak 2. sotoarentzat. Urtean % 1 igoko da.
- Prezio horiek indarrean dauden kontratu guztiei aplikatuko zaizkie, baldin eta Alkatetzak 2023-01-01etik aurrera erosteko aukera onartzen badu. Prezio horiei partzelagatik (zergarik gabe) ordaindutako alokairu-zenbatekoen % 100 kenduko zaie.
- Errentamenduaren prezioa, 2023an, 66.28€+BEZa da 1. sotoko partzeletarako, eta 60.76€+BEZa 2. sotoko partzeletarako. Hurrengo urteetan ere % 1 igoko da.
- Aurreko urteetan bezala, komunitate-gastuak errentariaren kontura izango dira, eta derramak Udalaren kontura.

Gaur egun partzela alokatzeko kontratua duten eta erosteko aukera baliatu behar ez duten errentariak lehenbailehen eskatu beharko dute, GUTXIENEZ 3 ASTEKO AURRERAPENAZ, partzela bera edo beste bat alokatzeko kontratu berria egitea. Horrela, kontratu berriaren emakida eta sinadura modu kateatuan izapidetu ahal izango dira, autoa aldi baterako kalean utzi beharrik gabe.

NUEVO PLIEGO DE CONDICIONES PARA EL ARRENDAMIENTO CON OPCIÓN DE COMPRA DE 272 PARCELAS MUNICIPALES DEL GARAJE PRIVADO DE SOLOARTE (AÑO 2023).

La Comisión Informativa de Hacienda, Patrimonio, Promoción Económica y Comercio celebrada el 19/01/2023 ha dictaminado favorablemente la proposición al Pleno, a celebrar el próximo 26 de enero, de aprobación de los pliegos modificados de condiciones para el arrendamiento con opción de compra de las parcelas propiedad del Ayuntamiento.

Las principales novedades son las siguientes:

- Los precios de ejercicio de la opción de compra en este año 2023 son 24.000€ para las parcelas de discapacitados, 21.900€ para el sótano 1 y 20.075€ para el sótano 2. Se incrementará un 1% anual.
- Estos precios se aplicarán a todos los contratos vigentes, cuya opción de compra se acepte por la Alcaldía a partir del 01-01-2023, y del mismo se deducirá el 100% de los importes del alquiler abonados por la parcela (sin impuestos).
- El precio del arrendamiento en el año 2023 es de 66.28€+IVA para parcelas del sótano 1 y 60.76€+IVA para parcelas del sótano 2. También con el incremento del 1% en años sucesivos.
- Como en años anteriores, los gastos de comunidad serán por cuenta del arrendatario y las derramas por cuenta del Ayuntamiento.

Los arrendatarios que actualmente tienen contrato de alquiler de parcela y no vayan a ejercitar la opción de compra, tendrían que solicitar cuanto antes, y por lo menos CON UNA ANTELACIÓN MÍNIMA DE 3 SEMANAS la celebración de nuevo contrato para el alquiler de la misma u otra parcela, de forma que se pueda tramitar de forma concatenada la concesión y la firma del nuevo contrato, sin necesidad de dejar el coche transitoriamente en la calle.